



**Euskadiko Ingeniaritza, Zientzia eta
Teknologiako Unibertsitate Hezkuntzako
Klusterre.**

ADIMEN TEKNOLOGIKOKO MUGAZ GAINDIKO LABORATEGIA

2020ko otsaila

ADIMEN TEKNOLOGIKOKO MUGAZ GAINDIKO LABORATEGIA, 4GUNE

Zer da Adimen Teknologikoko Mugaz Gaindiko Laborategia eta zer eskaintzen du?

Helburu nagusia da gaitasuna eskuratzea, 4GUNEk prospekzio eta zainketa teknologikoko jarduera egin ahal izan dezan, garapen teknologikoko joerak, aukerak eta nitxoak identifikatzeko EAEko RIS3ren arloetan. Ekimen honi esker, lehen aldiz lotu da 4GUNE Europako beste eskualde batekin. Zehazki, Bordeleko Unibertsitateko VIAinno plataformarekin lankidetzan egin da. Beraz, laborategi honek Euskadiren eta Akitaniaren arteko epe luzeko harremanak eta kolaborazioak indartzeko ere balio du.

4GUNEk gaitasun horiek eskuratu ondoren, adimen teknologikoko mugaz gaindiko laborategiak adimen teknologikoko ikerketak egingo ditu EAEko RIS3ren arlo lehenetsietan, pilotaje taldeek eskatuta.

Adimen Teknologikoko Mugaz Gaindiko Laborategiaren balantzea:

Unera arte, nagusiki bi jarduera garatu dira.

- Lehenik, zenbait prestakuntza egin dira 4GUNEren unibertsitate zentroetako dekanotza eta zuzendaritza taldeek eta zentroetako ikerlariak adimen teknologikoko gaitasunak eskuratzeko.

Zuzendariak eta dekanoeak prestakuntza jeneralista jaso dute saio bakar batean. Uztailaren 3an egin zen saioa, eta bederatzi lagun bertaratu ziren. Ikertzaileek prestakuntza zabalagoa jaso dute. Hiru arlo handi hartzen ditu horrek: patenteen oinarrien analisia, ekoizpen zientifikoaren oinarrien analisia eta nazioarteko loturen eta kolaborazioen analisia. Arlo bakoitzean, astebeteko prestakuntza intentsiboak egin dira ekainean, uztailan eta irailean.

Prestakuntza horien barruan, parte hartzaileek adimen teknologikoko analisi bat egin zuten Basque Industry 4.0 pilotaje taldeak proposatutako kasuetarako, eta ekintzan oinarritutako ikaskuntza sustatu zuten. Gai hauei buruzko azterketa kasuak aurkeztu ziren: 3D Bioprinting, Additive Manufacturing eta Augmented Reality-Transport.

- Bigarrenik, adimen teknologikoko ikerketako «gaitasunen truke» bat ezarri da. Ekintza hori bi mintegiren bidez garatu da. UPV/EHUren IXA eta TFM ikertaldeek parte hartu dute mintegiotan, VIAinno plataformako ikertzaileekin batera (uztailan eta azaroan).

2019ko azaroaren 18an, jardunaldi publiko bat egin zen. Helburua zen, batetik, adimen teknologikoko baterako laborategiaren saioak laburbiltzea eta partekatzea eta, bestetik, ikertzaileek saioetan garatutako ikasketa kasuak aurkeztea. Orotara, 22 lagunek parte hartu zuten: ikertzaileak, Basque Industry 4.0 pilotaje taldeko kideak, dekanok eta enpresen ordezkariak.

Adimen Teknologikoko Mugaz Gaindiko Laborategia 2020

2020an, Adimen Teknologikoko Mugaz Gaindiko Laborategia Basque Industry 4.0ren esanetara jarriko da prospektiba eta zaintza teknologikoko lana egiteko, sektorerako interes handieneko oraingo gaiei erantzuna ematea dela helburu. Horretarako, 2019an 4GUNE horretarako prestatutako ikertzaileak izango ditu. Hona hemen proiektuaren garapenaren eskema, faseak barne:

